

Jaurlaritzak asteartean onartuko ditu EAEko aurrekontuak

Zenarruzabeitia: «2.000 urtean aurrekontuak izango ditugu»

Erredakzioa / Donostia

2.000 urterako Euskal Autonomia Erkidegoak bere aurrekontuak izango dituela iragarri zuen atzo Idoia Zenarruzabeitia Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak. Izan ere, Gobernu Kontseiluak datorren asteartean onartuko ditu ziurrenik, eta eztabaida parlamentarioari ekingo zaio.

«LITEKEENA da datorren asteartean, hilak 26, aurrekontuak izatea», iragarri zuen Idoia Zenarruzabeitia atzo Radio Euskadin eginiko elkarrizketan. Asko jota, beste astebete atzera dezake Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen onartzea, lehendakariordeak esan zuenez.

Jakina denez, EAJ-EA gobernuak beste talderen baten laguntza beharko du aurrekontuak Legebiltzarrean onartzeko. Bi alderdiek Euskal Herriarrok taldearekin hitz egin dute EAEko aurrekontuen inguruko akordioa bilatze aldera, eta Idoia Zenarruzabeitiak espero du, urte amaierarako Eus-



ALBERTO MARTIN / EFE

Idoia Zenarruzabeitia, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea.

ko Legebiltzarrean onartuak izatea.

Gernikako Estatutuaren urteurrenari buruz ere mintzatu zen. «Egia da duela hogeitau urte baino hobeto gaudela Euskadiren botere politikoari dagokionez, baina egiteko ere asko dago», esan zuen Zenarruzabeitia. Tamalgarria iruditzen zaio orduko izpiritu eta borondate politikorik orain ez izatea, eta bereziki PSE-EE kritikatu zuen, Ma-

drilen gobernatu zuen bitartean Estatutua betetzeko ahaleginik egin ez zuelako. Beraz, ez du uste festarako eguna denik 20. urteurrena.

Bestalde, HBko Mahai Nazionalak Espainiako hauteskundeetan abstenitzeko hartu duen jarrera kritikatu zuen Zenarruzabeitia, eta «koiunturala» dela adierazi zuen. Proiektuak Euskal Herriitik kanpora eraman behar direla azaldu zuen.

Bizkaiko EHk lankidetzak eskaini die EAJ eta EAri

■ Aurrekontuak hitzartzeko prest azaldu da

Joseba Arruti / Bilbo

EUSKAL HERRITARROK taldea prest dago Bizkaiko EAJ eta EAekin edukietan oinarritutako konpromisoak hartu eta herrialdeko udaletan zein Foru Aldundian elkarrekin gobernatzeko, atzo Karmelo Landak adierazi zuenez. Haren esanetan, Bizkaia «ezkerreko politika eraikitzailea» behar du, eta EHk aurrekontuei egindako ekarpenekin bultzatu nahi du norabide hori.

EHren iritziz, hiru dira Bizkaiko Foru Aldundiko aurrekontuak kontuan hartu behar dituen lehentasunak: langabezia, bazterketa soziala eta euskara. Landa- ren ustez, «gaur egun ez du zentzurik Estatutuari buruz hitz egiteak, hori iragana baita; guk Bizkaitik

eraikuntza nazionala posible egingo duten politikak lehenetsi gura ditugu».

EHk errenta berbanatzeko politikak abian jartzea, herrialdeko ehun ekonomikoak bultzatzea eta gastu soziala handitzea eskatu zuen. Horrez gain, Aldundian lan ordu estrak desgertzea, ETten bitartez ez kontratatzea eta lan jarduna murriztea gura dute EHn.

EAEko aurrekontuaz, EH horren edukia negoziatzeko eta adostasuna lortzeko prest dagoela gaineratu zuen Karmelo Landak.

Euskararen arloan, «gure hizkuntzan bizi eta lan egiteko neurriak» eskatu zituzten EHkoek, eta bat etorri ziren herenegun Kontseiluak eragile politikoei zuzendutako adierazpenekin.

Madrilek EAEn gehiago inberti dezala eskatu du IUK

■ Gobernuaren politika ekonomikoa salatu du

Joseba Arruti / Bilbo

JOSE NAVAS Izquierda Unidako diputatu bizkaitarra atzo adierazi zuenez, «datorren urterako Espainiako gobernuak landu dituen aurrekontuek uko egiten diete hazkunde ekonomikoa hiritar guztiengana helarazteari, modu horretan azken lau urteotako politika neoliberalarekin jarraituz». IUK Euskal Autonomia Erkidegoarekin lotuta aurrekontuei egingo dizkien zuzenketak aurkeztu zituen atzo Navasek. Zuzen-

ketok ekonomia arlokoak izango dira, eta egoerarik larrienean dauden EAEko eskualdeei laguntzak ematea edo handitzea da euren xedea.

IUK hamaika mila milioi pezeta eskatuko ditu ezkerreko Berpizte Planerako, «bitarteko ekonomiko nahikoak behar baitira inbertsioak eta proiektu industrialak erakartzeko». Horrez gain, mila milioi eskatuko dituzte Aiarako eskualderako (Araba) eta lau mila gehiago Donostia-Irun eta Pasaiarako.

Bi presoren bakartzea salatzen gose greban daude Fleuryn

■ 13 egun daramatzate jan gabe zortzi presok

Erredakzioa / Donostia

FRANTZIAKO Fleury Mergis espetxean dauden zortzi euskal presoak gose greban daude urriaren 11z geroztik, Jon Bienzobas eta Jimmy Arrabit presoak bakartuta daudela salatzen. Preso horiek beste euskal presoren batekin jarri arte protestari eusteko asmoa azaldu dute.

Joan den astelehenean,

Iratxe Sorzabal presoari elkartasuna adierazteko protesta sinbolikoa egin zuten ziegen ateetako behatxuloak estaliz. Ondorioz preso guztiak zigor ziegetera eraman dituzte.

Espetxe horretan daude, Josetxo Arizkuren, Jimmy Arrabit, Rufino Arriaga, Jon Bienzobas, Eneko Borda, Iñaki Herran, Felix Alberto Lopez de la Calle eta Jon San Pedro euskal presoak.

KUT

txk t n truk,

zur r z k

K N N UT

Urr r n 15 tk urr r Kr n z n ul t n

r n z k zun z n nkut n

h l r z k zun urt k ku t

txk t n truk, HrJ r n

G n r k r z k t u n z tu,

h l k u m n zu t zur nt r s uz k

f n tuk tu. Hr r r k, k tu, r k k i

k n k t r f s n l s z l z u n t l z l

t r r k u u z u r s k u r, z u r n f m z

m i k t m t u z i t k r z k

k n n t z n l u n z k.





IL Hn,

GFTX ul n M n v l 3

K L J s M l r u r,

U NG Lrm, 13-3

h a u r t x